



San Migel Okangokoa, 1997-9-29.

San Migel, San Fausto eta Errosarioko Ama Birjinaren irudiak desagertu ziranean, Ignacio Bastidak egindako bertsoak:

1. San Migel egun maitagarri hontan
ni juakizuet kantari
santu hori degulako
auzo hontako zaindari.
Gure artean egin dezala
komeni hainbat mirari
urtean behin meza entzunaz
eskerrak emon berari.
2. Gaur jende asko alkartu gera
san Migeleko ermita aldian
gehienak gure santu berriei
otoitz egiteko ideian.
Oso politak jarri dituzte
guri begira altarian
hortikan guri lagundutzeko
premiñarik degunian.
3. Lehenengo urtean santurik gabe
hemen giñan danok larri
urte honetako berriak
laister dituzte ekarri.
Zeinek ordaindu izango dituen
nik ezin horri igarri
nire ustetan lehenenguak baiño
dotoriago dira jarri.
4. Aurreko urte batean ere
hemen obran giñan hasi
gogo gutzikin genbiltzan eta
ez gendun besteik merezi.
Hiru santuak alkar hartuta
juan ziraden igesi
geroztikan nun diran ere
ez ditugu guk ikusi.

5. Teillatu zaharra ta itogin asko
kanpailekua okertuta
lehengo santuak martxako zuten
hemen egoten beldurtuta.
Orain ikusiz dana dotore
kanpo eta barru apainduta
seguru asko martxa egiña
egongo dira damututa.